

Izuen gordelekuetan barrena

Ondo gogoan dut hemendik metro gutxira, KM ireki berrian maileguan hartuta irakurri nuela estreinako *Izuen gordelekuetan barrena*, duela hogeitun urte pasa. Aurrezki kutxa batek argitaratutako edizio merkea, maiztua, erlikia bat. Lortzeko liburu zaila izateak are preziatuago eta arretatsuago egin zuen irakurketa. Tarteka-tarteka, irakurleari gauzak zail jartzeak ere laguntzen baitu. Askotan berrirakurri dut geroztik. Pentsatu nahi dut, preskribatuta ez badago, gaztelaniaz “fuerza mayor” esaten zaion horrek zurituko duela liburua goitik behera fotokopiatu izanaren delitua.

Esan ohi da poeta gehienek lehen bilduman poeta horren mundu osoa izango dena egoten dela jada. Nondik begiratzen den, oso gauza inkieta garria ere izan daiteke hau, eta etsipengarria ere bai are, gure aldatzeko eta hobetzeko gaitasuna guk uste baino askoz ere apalagoa dela jabetzen garelako. Baina, horixe da egia berdaderoa. Gero etorriko den guztia hantxe dagoela jada, lehen liburuan. Sarriren kasua ez da salbuespena: bere betiko gaiak, paisajeak eta ikonoak, isuri erraza, sehaska kanta baten kadentziarekin kontu lazgarriak kontatzen dakienaren erritmo kulunkaria, umore kolpeak, erotismo printzak, bokazio literario europarra, literaturarekiko fedea... Hor dago dena. Litekeena da lehen liburu hauetan zirriboratuago edo zirri-lanbrotuago egotea agian, pulsu dardaratiz edo tatxoiez beteago, poeta mirestuen aipuz apainduago, beharbada, edo inkontzientzia estilistiko salatariz beteago –ezkutatu nahi ditugun gauzek presentzia hartzen dutela jabetuko ez bagina bezala–. Horregatik dira hain interesgarriak lehen liburuak. Hor dago bizitza literario oso baten mapa, iparrorratza, bide orria. Hamahiru beltzera fitxa guztiak jokatu dituen hogeita bi urteko poeta petoaren indar miresgarria.

Helduaroa oroimenerako omen, eta gaztaroa antizipaziorako. Hargatik, taroteko kartak botaz etorkizuna iragartzen saiatzen den igarlearen moduan, poeta gazteak bere buruari botatzen dizkion kartak dira lehen liburuko poemak. Hala irakurri ditut nik behintzat *Izuen gordelekuetan barrena* honetakoak. *Etxera itzuli* poema, adibidez, nork esango du ez dela profetikoa? (“Denborak bidea agorturik/ etxera itzuli ninduzunean/ berria zizun ateko zura/eta sarraila ere”). Eta hori bezala, askapen literarioarako gosea, bidaia, ihes fisikoaren bilaketa etengabea, lurralde eta aire berrien egarria.

“Gaztea nintzen, eta, beste askok bezala, labirintoaren sarrera bilatzen nuen, ez labirintoaren irteera” ohartarazten digu Sarrionandiak edizio berri honetarako apailatu duen hitzaurrean. Halaxe izan zen guretzat ere: Sarriren atzetik barneratu ginen asko euskal poesiaren labirintora, mundu sinbolikora. Baina ez ginen labirintora itsu itsuan sartu, ez horixe. Sarri, ipuineko ogi papurrak bezalaxe, galtzetan gordetzeko kobla batzuk eman zizkigun irakurtzeko geneuzkan poeten itxura zutenak. Pessoren itxurako ogi papurrak. Dylan Thomasen itxurakoak. Coleridgenak. Eliotenak. Vladimir Holanenak. Aurki jabetu ginen papur haiek ez zirela irteera topatzeko, labirintoan are gehiago sartzeko baizik. Bere poema liluragarriak gutxi balira, “kanon-eramangarri” bat ezarri zigun, literaturako-esentzialen-*kit*-portatila, eta zergatik ez esan, *hipertestu* bat, *avant la lettre*. Bere liburuen egiturari so eginez gero, Sarri izan zelako gure lehen *cyberidazlea*. Idazle izan nahi bagenuen zein *link* klikatu behar genuen adierazi ziguna.

Izuen gordelekuetan barrena berrirakurtzean, nire lehen irakurketa hartan Niloko iturburuaren bila zebilen gaztearen emozioa berritu zait, eta bertigoa eragin dit, nik pertsonalki, eta gure belaunaldiak oro har, harekin dugun zor kita ezinaren neurriaz jabetzeak. Zenbait banketxetako buruzagi despistatuei bezalaxe gertatu zait niri ere: banekien zorra handia zela, baina kontaduria liburuak arakatzen hasi arte ez nuen uste hainbesterainokoa zenik.

Izuen gordelekuetan barrena liburuari zor diogu portugesa ikasi eta fadoak entzuteko gogoia. *Izuen gordelekuetan barrena* liburuari zor diogu Lisboa, Paris, Dublin eta Pragara bidaiatzeko irrika eta behin hiri hauek ezagutu ondoren Sarrionandiak piztutako oihartzunekin konparatzeko joera biziosoa. *Izuen gordelekuetan barrena* liburuari zor diogu Salaminako soldaduen istorioaren berri lehen aldiz entzun izana. *Izuen gordelekuetan barrena* lehen aldiz betetako lehen aldia baita. *Izuen gordelekuetan barrena* da Alberto Caeiroren sonbrailuaren bila abiarazi gintuena. Liburu honek, Atxagaren *Etiopiarekin* batera, markatu zuen basamortua eta itsasoarekiko gure lilura, haiek erabaki zuten (eta hau ere aski inkietagarria da) gure hiztegi poetikoa: zein gaik eta zein hitzek merezi zuten poemetan agertzea eta zeintzuk ez (adibidez, *kausitu* hitz literarioa zen, baina *aurkitu* ez; *bitakora kaiera* idaztea literarioa zen, baina *bidaia koaderno* idaztea ez hainbeste. Ez ginen gu deus asmatzen ari: hala zioen *jurisprudentzia literarioak*).

Bizitzatik baino literaturatik gehiago bazkatzen ginen garai hartan, egia da. Sarrionandiak bezala idatzi nahi genuen. Eta esku eskura utzi zizkigun hark bere epigramak, bere iturriak, malenkonia dosi justua, bere ipuin itxurako poemak, bere poema itxurako kantuak, kantu bihurtutako poemak, bere irudi distiratsu eta gardenak. Eta baita larrialdi kasuetan telefonoz dei geniezaiekeen artista ezinbestekoen agenda partikularra ere (horren lekuko, adibidez, *40 izen* poema, horixe dena: izen zerrenda bat). Izu eta guzti, esku ahurrak irakur geniezazkion utzi zigun bere gordelekuan Sarrik, eskuzabaltasun osoz. Gure esku jarri zituen puzzleko pieza guztiak. Baina zer gertatzen zen pieza horiekin puzzlea osatzen saiatzen ginenean? Ez genuela urrundik ere haren irudien indarra eta gardentasuna lortzen. Ez bere erritmoa, ez bere umore fina, ez bere neurtitzen hegaldi lirikoa.

Oraindik ez genuen ikasi puzzleko pieza batzuk guk sortu beharrekoak zirela, eta horiek asmatu ahal izateko bizi egin behar dela lehenbizi, letra etzanik gabeko izuen gordelekuetan barrena.

Donostia (Koldo Mitxelena liburutegian, 2014-12-03)